| IL ULERMEN PROBA • *Prime Time* | |
|---|---|
| Izen-deiturak ……………………………………….…….. | Taldea ……. |
| > Markatu (**X**) erantzunak test laukietan: E F edo A B C D. Utzi bi. | |
| > Gaizki erantzundakoek ez dute negatiborik* (*E Fn zutabe bat osorik markatu ezean) | |

| | | |
|---|---|---|
| **Z**uzen | | |
| **N**egatib. | | |
| GUZT. | | / 40 |
| **K**alifikaz. | | / 10 |

1. Klemente Elustondok eta Martin Balaguerrek txikitatik ezagutzen dute elkar.
2. Ertzaintzatik kanporatuak izan ondoren, Martin Balaguerri bururatu zitzaion detektibe agentzia zabaltzea.
3. Detektibe agentzia ireki bezain laster bezero nahikotxo eduki zituzten.
4. Klemente Elustondok hiltzaileen fitxak idaztea gustuko zuen, haren afizioa, bokazioa eta ofizioa zelako.
5. Lukas Montxonekin geratu zirenean ez zuten ezer arrarorik nabaritu.
6. Martin Balaguerrek bi emazte izan zituen eta hirugarren aldiz ezkonduko da.
7. Klementeren gurasoak bere guraso biologikoak ziren.
8. Klemente oso neskazalea izan zen gaztetan, baina jada ez du interesik.
9. Balak, diru arazoak ditu ia beti.
10. Ernesto Gisasola Artxandan agertu zen bere burua urkatuta.
11. Klemente hiru hilotzen kasua ikertzen ari zen bezero batek eskatuta.
12. Edurnek, Alexen hiletan, apenas kointziditu zuen minutu bat Lukas Montxonekin.
13. Laura Arana Alex Aginagaren neskalaguna zen.
14. Mikel Lezetaren laguntzaz emakumea gizon bat dela konturatzen dira Bala eta Klemente.
15. Bala eta Klemente betidanik apustuetan aritu dira biak ere.
16. Klemente pertsona irekia da, emakumeekin harremanak erraz egiten dituena.
17. Alberto Sotillosek bere burua urkatu zuen Artxandako parke abandonatuan.
18. Alex Aginaga eta Lukas Montxon elkarren etsai ziren.
19. Eleberriaren hasieratik adierazita dago hiltzailea nor den, baina hura harrapatzean dago intriga.
20. Kapitulu batzuetan Bala da narratzailea.

| | E | F |
|---|---|---|
| 1 | | |
| 2 | | |
| 3 | | |
| 4 | | |
| 5 | | |
| 6 | | |
| 7 | | |
| 8 | | |
| 9 | | |
| 10 | | |
| 11 | | |
| 12 | | |
| 13 | | |
| 14 | | |
| 15 | | |
| 16 | | |
| 17 | | |
| 18 | | |
| 19 | | |
| 20 | | |

21. Nola deitzen da protagonista nagusia?
    a) Martin
    b) Emilio
    c) Klemente
    d) Borja

22. Zenbat aldiz ezkondu da Martin Balaguer?
    a) Bi aldiz
    b) Inoiz ez
    c) Hiru aldiz
    d) Behin

23. Hasiera batean, nolako kasuetan bihurtu ziren aditu detektibeak?
    a) Hilketa kasuetan.
    b) Hilketa eta dibortzio kasuetan.
    c) Bahiketa kasuetan.
    d) Dibortzio kasuetan.

24. Egun batean detektibe agentzian dei berezi bat jaso zuten, Lukas Montxonena. Zer zen eta zer nahi zuen?
   a) Telebistako programa baten zuzendaria zen orduan, eta beraren emaztea espiatzeko kontratatu nahi zituen.
   b) Telebistako aurkezlea izandakoa, beraiekin geratzea nahi zuen.
   c) Telebistako aurkezle eta aktorea izan zen, eta hiru lagunen hilketak ikertzea nahi zuen.
   d) Telebistako aurkezle eta aktore izan zen, eta detektibeekin geratu eta hitz egin nahi zuen.

25. Bestela esanda, zertarako deitu zien Lukas Montxonek Bala eta Klementeri?
   a) Beraien laguna zelako.
   b) Beraien laguntza behar zuelako kasu bat argitzeko.
   c) Bere emaztea beste gizon batekin zebilela pentsatzen zuelako.
   d) Balak bere emaztearekin zita bat izan zuelako.

26. Nor izan zen Gisasolaren etxetik atera zen emakumea?
   a) Lukas Montxon mozorraturik.
   b) Gisasolaren maitalea.
   c) Etxeko neskamea.
   d) Ernesto Gisasolaren arreba.

27. Nor zen Alex Aginagaren enpresako nagusi berria?
   a) Edurne Bastarrika
   b) Alex Aginaga
   c) Josu Aginaga
   d) Santi Lete

28. Emilio Arrue noren abokatua da?
   a) Juan Antonio Iztuetarena.
   b) Ainhoa Lasagabasterrena.
   c) Klemente Elustondorena.
   d) Ernesto Gisasolarena.

29. Nolakoa zen Laura Arana?
   a) Ilehoria, altua eta apur bat potoloa.
   b) Ile labur gaztainkara, argala eta ez oso altua.
   c) Ilehoria, argala eta altua.
   d) Ile luze beltza, nahiko altua eta argala.

30. Nongo komisaldegian egiten du lan Txutxo Alonsok?
   a) Getxoko komisaldegian.
   b) Bilbon, Deustukoan.
   c) Donostiako batean.
   d) Gernikakoan.

31. Martin eta Klementeri Lukasek zergatik eskatu zien Alex Aginagaren heriotza ikertzeko?
   a) Alex eta Lukas txikitatik ezagunak zirelako.
   b) Alex eta Lukas auzokideak zirenez, ez zuen uste Alexek bere buruaz beste egin zuenik.
   c) Alex eta Lukas ezagunak zirenez, Alexen senide baten hilketarekin lotzen zuen gertatutakoa.
   d) Ez zuen sinesten Lukasen suizidioa eta, gainera, telebistako baten beste “suizidio” batekin zerikusia nabaritzen zuen.

32. Hildakoek zer zuten amankomunean?
   a) Telebistako aurkezleak ziren.
   b) Aktoreak ere baziren.
   c) Hedabideetan lan egiten zuten.
   d) Alex Aginagaren adiskide ziren denak.

| | A | B | C | D |
|---|---|---|---|---|
| 21 | | | | |
| 22 | | | | |
| 23 | | | | |
| 24 | | | | |
| 25 | | | | |
| 25 | | | | |
| 26 | | | | |
| 27 | | | | |
| 28 | | | | |
| 29 | | | | |
| 30 | | | | |
| 31 | | | | |
| 32 | | | | |
| 33 | | | | |
| 34 | | | | |
| 35 | | | | |
| 36 | | | | |
| 37 | | | | |
| 38 | | | | |
| 39 | | | | |
| 40 | | | | |
| 41 | | | | |
| 42 | | | | |

33. Martin Balaguer aseguru-etxe batera joan zen eta Josu Aginagarekin hitz eginda zer jakin zuen?
   a) Josu eta Alexen arteko harremanak txarrak zirela, ez zekiela ia ezer anaiaren lanbideaz, eta honen emazteak ere harreman txarra zuela Josurekin.
   b) Alexen anaia zen eta konturatu zen anaiek nahiko harreman ona zutela.
   c) Alexen anaia zen eta horren emaztea Edurne deitzen zela enteratu zen.
   d) Konturatu zen Alexek ez zuela senide gehiagorik; Josu zela geratzen zitzaion bakarra.

34. Gurasoak hil ondoren, Klemente bere familia ikertzen hasi zen. Zer aurkitu zuen?
   a) Beste anaia bat izan zuela, berak jakin gabe, eta gurasoek ezkutatu egin ziotela hori.
   b) Haren ama ez zela benetako ama, baina aita bai.
   c) Haur adoptatua zela, baina beraren adopzioa ilegala izan zela.
   d) Jakin zuen adoptatua izan zela eta, gainera, haur lapurtua zela, bere benetako amari.

35. Gisasolaren etxeko segurtasun-kamerak egindako grabazioan zer ikusten zen?
   a) Lapur bat arrapaladan, ihesean bezala.
   b) Emakume bat etxetik irteten, normaltasunez.
   c) Ez zen ezer ikusten, itzal batzuk, kalitate txarrekoa baitzen grabazioa.
   d) Bikote bat: gizon bat eta emakume bat.

36. Nola konturatu zen Bala, Lukas Montxon ez zela elbarria?
   a) Zapatak lokatz arrastoekin ikusi zizkiotelako.
   b) Armairu altu batean utzitako telefonoa hartu behar izan zuelako.
   c) Leihotik bi detektibeak agurtu zituenean zutunik jartzeko gai izan zelako.
   d) Auzoko batek oinez ibiltzen zela kontatu zien, osteratxoak egiten zituela parketik.

37. Lukas Montxonek bidalitako DVDan zer agertzen da?
   a) Berak egindako epilogoetako elkarrizketak.
   b) Lukas Montxon zutunik, gurpildun aulkirik gabe.
   c) Lukas Montxon hilketak aitortzen, eta bere burua hiltzen.
   d) Alex Aginagak egindako dokumental bat, hilketak argitzen zituena.

38. Zer dira Epilogoak?
   a) Pertsona ospetsuei egindako elkarrizketa sorta bat
   b) Alex Aginagak asmatutako telesaioa.
   c) Lukas Montxonek idatzitako liburu baten pasarteak.
   d) Lukas Montxonek asmatutako telesaioa.

39. Nor da kontakizunean hiltzen den azken pertsona?
   a) Klemente, ezin duelako jasan bere gurasoek eragindako trauma.
   b) Lukas Montxon, baina agian simulazioa da.
   c) Alberto Sotillos, urkatuta.
   d) Ernesto Gisasola, Azkorriko labarretatik salto eginda.

| | | |
|---|---|---|
| 40. | Ertzaintzatik kaleratu dituzte Irrintzi Operazioan nahastutako bi poliziak. Irrintzika ez, ostikok bota gintuzten Ertzaintzatik. Egunkariko kronikari gaztelera garbian idatzitako azpititulua besterik ez zitzaion falta: ¡Balaguer y Elustondo a la puta calle!” | a) Greba antolatzeagatik kaleratu zituzten.<br>b) Droga kontu batean gertatutakoagatik.<br>c) Txapuza galanta egiteagatik.<br>d) Ertzain bat zauritu eta ia hiltzeagatik. |
| 41. | Detektibeek Lukas Montxonekin hitz egin ondoren, egun batzuk eman zizkien “suizidioa” inbestigatzeko. Ondorioz, Klemente Artxandara joan zen eta Martin Algortara. | Zer ikusi zuten?<br>a) Gorpuak, tanatorioan, zauri askorekin.<br>b) Ezer ez; ez zegoen ezer ez inor.<br>c) Klementek susmagarri bat topatu zuen.<br>d) Martinek neska ilehori bat berari begira. |
| 42. | Ui, ui, ui... Lukas Montxoni ez zaizkio guk ateratako ondorioak batere gustatuko.<br>—Ziurrenik, ez. | a) Alexen heriotza, frogen arabera, suizidioa izan zen.<br>b) Alexek ez zuen bere buruaz beste egin.<br>c) Alex pozoituta hil zela jakin dute.<br>d) Alexen hiltzailea aurkitu dute: auzokoa. |